



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

2023KO ABENDUAREN 20AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Maialen Iñarra Arregi
Oskar Santamaria Picabea
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Xabat Beloki Segurola.

Usurbilen, 2023ko abenduaren 20an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2023KO AZAROAREN 29KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2023ko azaroaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO AZAROAREN 20TIK ABENDUAREN 6RA (2023/1144-2023/1210).



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Alkatetzak 2023ko azaroaren 20tik abenduaren 6ra bitartean (2023/1144-2023/1210) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2024KO UDAL AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Batzarkideek, Antolaketa batzordeko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“2024 urtean indarrean izango den Aurrekontua osatzeko garaia iritsita, udal gobernu taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuen azaroaren 15eko Antolaketa Batzordean. Egun berean gonbidapena luzatu zien beste udal taldeei, egoki ikusten zituzten ekarpenak egin zituzten.

EAJ-PNV eta PSE udal taldeek idatziz egindako ekarpen eta zuzenketak eztabaidatu dira. Abenduaren 13ko batzordean EHBilduren emendakin 1, PSE-EHBilduren 7 emendakin eta EAJEHBilduren 4 onartu dira, 0 ukatu eta 17 bertan behera utzi dira, guztira 103.000€ko gehikuntza gauzatuz.

Onartutako emendakinekin eta legezko txosten guztiak jaso ondoren, osatutzat eman zuen Aurrekontu proiektua udal gobernu taldeak eta abenduaren 14ko Ogasun Batzordean honako diktamen edo irizpena luzatu zaio Udalbatza Osoari, batzordea osatzen duten kideen gehiengoaren oniritziarekin, 3 bozka alde (EH Bildu) eta 2 abstentzio (EAJ eta PSE).

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

1.- 2024 ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Aurrekontu proiektua hasieraz onartzea, guztira 13.117.569,45 €urokoa.

2.- Hasieraz onetsitako Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 eguneko epealdian Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Abstentzioa: Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia gehiengoz onartu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

4.- 2024KO PLANTILA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZA (2023FAZE0001).

Batzarkideek, Antolaketa batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udal aurrekontuarekin batera Plantilla Organikoa onartu behar da.

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2023ko abenduaren 13an egindako Antolakuntza Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Bost (5). EHBildu(3), EAJ(1) eta PSE(1)

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

LEHENENGO: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2024ko Plantilla Organikoari onespena ematea.

BIGARREN: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.“

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- 2024KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA (2023FAZE0001).



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Batzarkideek, Antolaketa batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126.4 eta abenduaren 1eko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 11/2022 Legeak 45. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.

Gaia 2023ko abenduaren 13an egindako Antolakuntza Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Bost(5). EHBildu(3), EAJ(1) eta PSE(1)

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

LEHENENGOA: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2024ko Lanpostuen Zerrendari onespina ematea.

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOKO 2024KO ERANSKINA ONARTZEA.

Batzarkideek, Antolaketa batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“2023-2025 Dirulaguntzen Plan estrategikoko 8.artikuluan ezarritakoarekin bat, 2024 urterako eranskin berriak onartuko ditu udalbatza plenoak, aurreko ekitaldi amaieran. Eranskin horretan diruz lagundutako jarduera zerrendatu eta xehatzen dira, sailaren arabera antolatuta.

Gaia 2023ko abenduaren 13an egindako Antolakuntza Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkek eman direlarik:

- Aldeko botoak: Bost (5). EHBildu(3), EAJ(1) eta PSE(1)

Beraz, hau guztia kontuan harturik, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Lehena: 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2024ko eranskina onartzea.

Bigarrena: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-100 (UGARTE) EREMUKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA (2023HXEA0001).

Batzarkideek Lurraldea batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“AURREKARIAK

MOYUA HOMES, S.L. enpresak (IFK: B2018668) Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-100 (Ugarte) eremuko Xehetasun-Azterketa aurkeztu zuen Udalak izapidetu dezan.

2023ko irailaren 29an, Alkateak 2023/976 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-100 (Ugarte) eremuko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea, udal arkitektoaren txostenean ezarritako baldintzekin.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

JENDAURREKO EPEALDIA

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (197. zenbakia): 2023-10-11
- Berria: 2023-10-04



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

- Gara: 2023-10-04
- El Diario Vasco: 2023-10-25

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

PLANO ZUZENDUAK AURKEZTEA

Xehetasun-Azterketaren hasierako onespenean, udal arkitektoak ezarritako baldintzak betetze aldera, MOYUA HOMES, S.L. enpresak plano zuzenduak aurkeztu zituen 2023ko urriaren 11ean.

TXOSTEN TEKNIKOA

Aurkeztutako planoak aztertu ostean, udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andreak, 2023ko abenduaren 4an aldeko txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA HIRIGINTZA

GAIA: A-100 UGARTE hirigintza eremuaren Xehetasun Azterketa
ESKATZAILEA. Aitor Abaunz Colina, Moyua Homes S.L.-ren izenean
KOKAPENA: "A-100 Ugarte" hirigintza eremua
ESKAERA DATA: 2023ko iraila
ESPEDIENTE ZK: HZ.01 2023-346 / 2023-HXEA.001

2023ko irailaren 5ean Moyua Homes S.L-k "A-100 UGARTE" hirigintza eremuaren Xehetasun Azterketa aurkeztu du Udalak izapidetu dezan

AURREKARIAK:

- 2023ko irailaren 5ean Moyua Homes S.L-k "A-100 UGARTE" hirigintza eremuaren Xehetasun Azterketa aurkeztu du Udalak izapidetu dezan.
- 2023ko irailaren 25ean udal arkitektoaren aldeko txostena, dokumentua ontzat emateko bete beharreko baldintzak honela zehaztuz:
Aurrez aipatutakoak jarraiki, 2023ko irailean Moyua Homes S.L-k "A-100 UGARTE" hirigintza eremuan aurkeztutako Xehetasun Azterketa dokumentuari aldeko txostena idazten zaio baldintza hauekin:
 - Behin betiko onarpenerako, II.5 plano zuzendua aurkeztu beharko da non teilatu-hegalen neurria egun baserria duena izango da.
 - Xehetasun Azterketa behin betiko onartu ondoren, partzela pribatua proposatutako lerrokaduren aldaketak erregularizatzeko espedientea tramitatu eta onartu beharko da.
 - Xehetasun Azterketa oinarri hartuta garatu beharreko Eraikuntza Proiektuak, besteren artean, honakoak bete beharko ditu:
 - a) Xehetasun Azterketan jasotako lerrokadurak gehienezkoak izanik, bertan antolatuko den eraikigarritasunak indarrean diren Usurbilgo AASS-ek eta "A-100 Ugarte Eremuko HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA"-k ezarritakoa bete beharko du.
 - b) Eremuan egin nahi den edozein esku-hartzek baserriaren ondare arkitektonikoari eta ondare arkeologikoari dagokion babes erregimena bete beharko du.



- *Ondare arkitektonikoari dagokionez Ugarte baserriari bere interesa elementu bakanetan, fatxaden osaketetan eta aldameneko eraikuntzekin duten harremanean, edo guztiaren itxura homogeenan datzan ondasun higiezinak, eta oinarrian, ingurune balioa egozten zaio. Historikoki duen garrantziaz gain, egungo baserrian nabarmentzen diren elementuak etxearen hego-ekialdeko fatxada, leiho eta ateetako harlanduak eta zurezko bilbapenak dira. Beraz, Xehetasun Azterketak Ugarte baserrian AASSak antolatzen dituen etxebizitzak 80/2022 Dekretura egokitzeko proposatutako egokitzapenak jasoko dituen Eraikuntza Proiektuak egungo fatxaden ezaugarri nagusiak errespetatutako ditu, tartean leiho eta ate inguruko harlanduak eta fatxadako egurrezko elementu eta bilbadurak errespetatu, zaindu eta agerian jarri beharko ditu. Teilatu-hegalek egungo dimentsio berak izango dute eta igogailuaren kasetoia ezingo da estalki planotik kanpo atera.*
- *Ondare arkeologikoari dagokionez, 3. kategoriako Balizko Eremu Arkeologikoa izanik, edozein esku-hartzek orubearen baloreari buruzko eta proiektuaren eraginari buruzko ikerketa bat eduki beharko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango da Proiektu Arkeologiko baten beharra eta hedadura zehaztuko duena, beharrezkoa balitz.*


Espedientearen aurrekari osoak 2023ko irailaren 25ean hasierako onarpenerako udal arkitektoak egindako txostenean jaso dira.

- 2023ko irailaren 29ean, Alkateak 2023/976 zenbakidun dekretu bidez "A-100 UGARTE" eremuaren Xehetasun Azterketa baldintzekin hasieraz onartzea eta jendaurrean jartzea onartu zuen.
- 2023ko urriaren 11ean espedientea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (197. zenbakia) argitaratu zen. Gainera, iragarkia Berria, Gara eta Diario Vasco egunkarietan argitaratu zen. Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik izan.
- 2023ko urriaren 11ean interesatuak udal arkitektoaren txostenean eskatutako plano zuzenduak aurkeztu ditu, udala behin betiko onartu dezan.

TXOSTENA ETA PROPOSAMENA

Aurrekarietan azaldu bezala "A-100 UGARTE" hirigintza eremuaren Xehetasun Azterketa hasieraz onartu zen 2023ko irailaren 29ean 2023/976 zenbakidun Alkate dekretu bidez, udal arkitektoaren txostenean ezarritako baldintzekin, eta jendaurrean egon den epealdian ez da alegaziorik jaso.

Udal arkitektoaren txostenak, behin betiko onarpenerako egin beharreko zuzenketak jaso zituen, eta interesatuak 2023ko urriaren 11ean eskatutako honako plano zuzenduak aurkeztu zituen:



Aurkeztutako planoak aztertu dira eta ontzat eman dira. Beraz, gauzak horrela "A-100 UGARTE" hirigintza eremuaren Xehetasun Azterketaren izapidetzearekin jarrai daiteke eta behin betiko onarpena eman, hasierako onarpenean egindako ohartarazpen hauekin:

- Xehetasun Azterketa behin betiko onartu ondoren, partzela pribatuan proposatutako lerrokaduren aldaketak erregularizatzeko espedientea tramitatu eta onartu beharko da.
- Xehetasun Azterketa oinarri hartuta garatu beharreko Eraikuntza Proiektuak, besteren artean, honakoak bete beharko ditu:
 - Xehetasun Azterketan jasotako lerrokadurak gehienekoak izanik, bertan antolatuko den eraikigarritasunak indarrean diren Usurbilgo AASS-ek eta "A-100 Ugarte Eremuko HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA"-k ezarritakoa bete beharko du.
 - Eremuan egin nahi den edozein esku-hartzek baserriaren ondare arkitektonikoari eta ondare arkeologikoari dagokion babes erregimena bete beharko du.
 - Ondare arkitektonikoari dagokionez Ugarte baserriari *bere interesa elementu bakanetan, fatxaden osaketetan eta aldameneko eraikuntzekin duten harremanean, edo guztiaren itxura homogeen datzan ondasun higiezinak, eta oinarrian, ingurune balioa egozten* zaio. Historikoki duen garrantziaz gain, egungo baserrian nabarmentzen diren elementuak *etxearen hego-ekialdeko fatxada, leiho eta ateetako harlanduak eta zurezko bilbapenak* dira. Beraz, Xehetasun Azterketak Ugarte baserriari AASSak antolatzen dituen etxebizitzak 80/2022 Dekretura egokitzeko proposatutako egokitzapenak jasoko dituen Eraikuntza Proiektuak egungo fatxaden ezaugarri nagusiak errespetatutako ditu, tartean leiho eta ate inguruko harlanduak eta fatxadako egurrezko elementu eta bilbadurak errespetatu, zaindu eta agerian jarri beharko ditu. Teilatu-hegalek egungo dimentsio berak izango dute eta igogailuaren kasetoia ezingo da estalki planotik kanpo atera.
 - Ondare arkeologikoari dagokionez, 3. kategoriako Balizko Eremu Arkeologikoa izanik, edozein esku-hartzek orubearen baloreari buruzko eta proiektuaren eraginari buruzko ikerketa bat eduki beharko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango da Proiektu Arkeologiko baten beharra eta hedadura zehaztuko duena, beharrezkoa balitz.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, sinadura datan

Guzti hau ikusirik, Lurralde Batzordeak, 2023ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-100 (Ugarte) eremuko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea, ohartarazpen hauekin:

- Xehetasun Azterketa behin betiko onartu ondoren, partzela pribatuan proposatutako lerrokaduren aldaketak erregularizatzeko espedienteak tramitatu eta onartu beharko da.
- Xehetasun Azterketa oinarri hartuta garatu beharreko Eraikuntza Proiektuak, besteren artean, honakoak bete beharko ditu:
 - * Xehetasun Azterketan jasotako lerrokadurak gehienezkoak izanik, bertan antolatuko den eraikigarritasunak indarrean diren Usurbilgo AASS-ek eta "A-100 Ugarte Eremuko Hiri Antolamendurako Plan Berezia"-k ezarritakoa bete beharko du.
 - * Eremuan egin nahi den edozein esku-hartzek baserriaren ondare arkitektonikoari eta ondare arkeologikoari dagokion babes erregimena bete beharko du.
 - Ondare arkitektonikoari dagokionez Ugarte baserriari *bere interesa elementu bakanetan, fatxaden osaketetan eta aldameneko eraikuntzekin duten harremanean, edo guztiaren itxura homogean datzan ondasun higiezinak, eta oinarrian, ingurune balioa egozten* zaio. Historikoki duen garrantziaz gain, egungo baserrian nabarmentzen diren elementuak *etxearen hego-ekialdeko fatxada, leiho eta ateetako harlanduak eta zurezko bilbapenak* dira. Beraz, Xehetasun Azterketak Ugarte baserrian AASSak antolatzen dituen etxebizitzak 80/2022 Dekretura egokitzeko proposatutako egokitzapenak jasoko dituen Eraikuntza Proiektuak egungo fatxaden ezaugarri nagusiak errespetatutako ditu, tartean leiho eta ate inguruko harlanduak eta fatxadako egurrezko elementu eta bilbadurak errespetatu, zaindu eta agerian jarri beharko ditu. Teilatu-hegalek egungo dimentsio berak izango dute eta igogailuaren kasetoia ezingo da estalki planotik kanpo atera.
 - Ondare arkeologikoari dagokionez, 3. kategoriako Balizko Eremu Arkeologikoa izanik, edozein esku-hartzek orubearen baloreari buruzko eta proiektuaren eraginari buruzko ikerketa bat eduki beharko du, eta Gipuzkoako Foru Aldundia izango da Proiektu Arkeologiko baten beharra eta hedadura zehaztuko duena, beharrezkoa balitz.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-100 (Ugarte) eremuko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-100 (Ugarte) eremuko Xehetasun-Azterketa behin betiko onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea, Xehetasun-Azterketaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-107 (IARTZA) EREMUKO HEU 107.3 EXEKUZIO UNITATEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA (2023HXEA0002).

Batzarkideek Lurraldea batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“AURREKARIAK

AINARA SAGARNA ARANBURU andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketa aurkeztu zuen Udalak izapidetu dezan.

2023ko urriaren 27an, Alkateak 2023/1069 zenbakidun dekretuaren bidez zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea, udal arkitektoaren txostenean ezarritako baldintzekin.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

JENDAURREKO EPEALDIA

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (211. zenbakia): 2023-11-02
- Berria: 2023-11-02
- Gara: 2023-11-02
- El Diario Vasco: 2023-11-02

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2023ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-107 (Iartza) eremuko HEU 107.3 exekuzio unitateko Xehetasun-Azterketa behin betiko onespina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea, Xehetasun-Azterketaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

9.- TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO -UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA- AKORDIOARI ATXIKITZEA.

Batzarkideek Lurraldea batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

2023ko azaroak 17an IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Udalsarea 2030 sareko kide izateko akordio proposamena helerazi du.

Akordioak honela dio hitzez hitz:

TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 – UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA

AURREKARIAK

Lehenengoa.-

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak “Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako 2030 Agenda” dokumentua onartu zuen 2015ean, hau da, “pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat”. 2030 Agendak zuzenean eskatzen die tokiko gobernuei agenda modu egokian ezarri dezatela eta beraren Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) eta helmugak bete ditzatela. Tokiko eskumenei estu lotuta, 2030 Agendak exijitzen du tokiko politika eta kudeaketa bestelako modu batean egin daitezela, legegintzaldia bera gainditzen duen epe luzerako ikuspegi estrategiko batez, ambizioz eta eraldatzeko nahiaz jokatzuz, ikuspegi hori ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alor guztietan hedatuz. Ahalbidetzen du, gainera, udal politika eta kudeaketaren ahaleginak eta baliabideak arrazionalizatzea, helburuen arabera lan eginez eta emaitzak ebaluatzeko eskatuz, herritarren parte-hartzea sustatuz eta gizarteari kontuak ematearen alde arituz.

Covid-19aren osteko susperraldi eta eraldaketarazuzendutakotokiko gobernantza berria 2030 Agendan oinarritu beharko litzateke eta hasieratik beretik GJHetan eta dagozkien helmugetan inspiratu, tokiko gobernantza-sistema integral adimendunak egituratzeko, horien bidez 17 GHJen betearazpena katalizatzeke 2021-2030 hamarkadan, hots, Nazio Batuen Erakundeak “Ekintzaren Hamarkada” deitzen dion garaian.

2015ean Parisko Akordioa onartu zen, eta honek ere hirien, eskualdeen eta tokiko administrazioen garrantzia aitortzen du, klima-aldaketari aurre egiteko eta beraren ondorioetara egokitzeko hartuta duten konpromisoari lotuta, eta beraren inplementazioa funtsezkoa da Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzeko. Beste alde batetik, bi mugarri horiek dira 2019an onartutako Europako Itun Berdearen ardatzak, agenda politikoaren norabidea hamarkada honetarako markatzen ari baitira.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Bigarrena.-

2018ko apirilaren 11n, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen, Gobernu Kontseiluan, eta hortik abiatuta hainbat ekimen hedatu dira Euskadiko eragile sozial, ekonomiko eta administratiboak inplikatzen. 2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa onartu zuen, Gobernu Kontseiluan. Beraren eginkizuna da kontratu sozialaren kultura bultzatzea, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegi eraldatzaileari lotuta. 2021eko uztailaren 6an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa sortu zuen, hau da, lankidetzaren eta aholkularitza-organo bat, helburutzat duena 2030 Agenda Euskadikopolitika publikoetan harmonizatzen eta garatzen laguntzea. Foroaren burua Lehendakaria da.

Hirugarrena.-

Udalsarea 21–Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea 2002ko abenduaren 20ko eraketa-hitzarmena sinatzearen bidez sortu zen. Sarea euskal Administrazio publikoen arteko koordinazio-foro bat izateko asmoarekin sortu zen, jasangarritasuna udal mailan sustatzeko, Tokiko Agenda 21 euskal udalerrietan ezartzeko bidean aurrera eginez, EAEko Ingurumen Esparru Programarekin bat etorritik. 2010eko martxoaren 30eko bigarren hitzarmen arautzailearen ostean, 2016ko apirilaren 27an EAEko tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko Akordioa sinatu zen, 191 udalerriren, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta beste erakunde publiko batzuen atxikimenduekin. 2019an, sareak izen berria hartu zuen: Udalsarea 2030 – Udalerri Jasangarrien Euskal Sarea, bere kideen ibilbidearekin bat etorritik eta bere helburuak 2030 Agendaren jarraibideekin lerrokatuz.

Laugarrena.-

Tokiko esparruan, Udalsarea 2030en baitan sare moduan eta maila anitzeko lankidetzaz ia hogeitaz egindako lanak Tokiko Agenda 21 finkatzen du tokiko jasangarritasun- politikak Euskadin planifikatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, euskal udalerririk askotan. Hala eta guztiz ere, oraingo koiunturak Tokiko 2030 Agenda berriekin bat egitera edo horietara zuzendutako trantsizioak egitera bultzatzen du. Tokiko gobernantzaren euskal eredu berri horrek ahalbidetuko du inplikazio politikoa eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa biziberritzea, sailen arteko zeharkakotasuna eta izaera estrategikoagoa duen lan-plan bat indartzea, gizartearen parte-hartzerako hizkuntza berri bat sortzea, komunikazio eraginkorragoa lortzea eta finantziatorako aukerak areagotzea. Gainera, tokiko euskal administrazioaren ahalegin kolektiboak agerian uzten du honek tokiko jasangarritasunari egiten dion ekarpena, eta baita Euskadi Garapen Jasangarriaren Helburuen lokalizazioaren nazioarteko erreferente gisa kokatzeari egiten dion ekarpena ere.

Adierazitako aurrekariarekin bat etorritik, eta Euskadiko tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzen duen esparru arautzaile berri bat ezarri behar denez, akordio honi atxikitzen zaizkion erakundeek onartzen dituzten hizpaketa hauek ezartzen dira:



HIZPAKETAK

LEHENENGOA. XEDEA

Akordio honen xedea datokiko jasangarritasuna Udalsarea 2030 – Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen bidez Euskadin bultzatzera zuzendutako kooperazio- eta lankidetzaz-esparrua ezartzea.

Horri begira, Tokiko 2030 Agendaren aldeko konpromisoaren eta beraren ezarpen, garapen eta jarraipenaren alde egiten duten Administrazio publikoen arteko harremanak arautzendiraz, helburu honekin: 2030 Agendaren bidez tokiko ekintza jasangarria sustatzea dokumentu honi atxikitzen zaizkion tokiko euskal erakundeetan (Udalak eta Eskualde-erakundeak).

Sareak izaera parte-hartzaile eta irekia du; izan ere, kide berrien borondatezko atxikimendua sustatzen du eta izaera dinamikoa ematen dio, bere partaide guztiak jasangarritasunaren alde inplikatzearen bidez.

BIGARRENA. UDALSAREA 2030 SAREAREN ANTOLAMENDU-EGITURA ETA ORGANOEN EGINKIZUNAK

Udalsarea 2030 Sarearen antolamendu-egitura honela osatuko da:

1.- Lehendakaritza:

Lehendakaritza lhobeko Administrazio Kontseiluaren buruaren eskuetan egongo da eta eginkizun hauek beteko ditu:

- Sarea gidatzea, plan estrategikoak eta kudeaketa-planak onartuz.
- Interesatutako erakundeek Sareari egindako atxikimendua baliozkotzea.
- Baliabide nahikoak ematea sarearen Idazkaritza Teknikoak bere eginkizunak garatu ditzan eta berari esleitutako plan estrategikoen eta kudeaketa-planen helburu espezifikoak bete ditzan.

2.- Idazkaritza Teknikoa:

Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikoa Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, lhobe S.A.ri dagokio. Honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Sarearen kudeaketatik eratorritako zeregin administratiboak garatzea.
- Sareko organoen topaketen urteko dinamizazioa eta kudeaketa, eta baita lantalde tematikoen dinamizazioa ere.
- 2030 Agendaren eremuko beste ekimen eta proiektu batzuei buruzko ezagutza eta esperientziak ekartzea, Euskadi mailan, haien koordinazioa bermatzeko.
- Proiektu berritzaileen garapena modu proaktiboan sustatzea, interesekoak diren eremuetan.
- Sarearen zerbitzuak diseinatzea, kudeatzea eta bazkideen beharretara egokitzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokia



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

mantenduz, I. eranskinean ezarritakoaren arabera, eta baita tokiko politika publikoak ebaluatzeko eta tokiko jasangarritasunaren adierazleak kalkulatzeko programakere mantenduz. Bi zerbitzu horiek izaera estrategikoa dute eta bat datoz Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren plangintza estrategikoaren tresnekin eta araudiarekin.

- e-mugi aplikazio informatikoaren erabilera espezifikorako lizentzia transferiezin eta ez-esklusibo bat ematea hori Idatziz eskatzen duten Udal eta Toki-erakundeei, horren bidez euren Tokiko 2030 Agendaren prozesuak, jasangarritasun-politikak eta ekintza-plan jasangarriak kudeatu ditzaten Udalsarea 2030en baitan, betiere Sarearen partaide izateari lotuta. I hobek akordio honen I. eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera emango du lizentzia.
- Sarea teknikoki ordezkatzeko tokiko ekintza jasangarriarekin lotutako foro profesional edo teknikoetan.
- Aliantzak eta lankidetzak indartzea eta hitzartzea sare zein erakundeekin, esperientziak trukatzeko, Sarearen jarduna optimizatzeko eta bere kideen beharrak betetzen laguntzeko.
- Sarearen kudeaketa eta dinamizazioari lotutako gastuak ordaintzea, bertan ezarritako eta lhoberi egotzitako helburuak betetzeko xedez.

3.- Batzorde Teknikoa:

Batzorde Teknikoa lantalde iraunkor gisa eratzen da, eta Akordio honi atxikitako erakunde bakoitzak gehienez 2 ordezkari izan ditzake bertan. Sarearen jarduerak eta zerbitzuak komunikatzeko foro nagusia da, baina horrek ez du baztertzen Batzordeak berak lantaldeak eratzeko erabakia hartzea, bere operatibotasuna bermatzeko.

Batzorde Teknikoaren eginkizunak honako hauek dira:

- Esperientzien eta informazio baliagarriaren trukea sustatzea.
- Udal eta kideen profil desberdinen arteko komunikazioa sustatzea.
- Lantalde espezifikoak eratzea Sarearen material eta baliabide komunak garatzeko.
- Sarearen plan estrategikoen eta kudeaketa-planen diseinuan parte hartzea.

4.- Tokiko Ekintza Koordinatzeko eta Sustatzeko Batzordea:

Tokiko Ekintza Koordinatzeko eta Sustatzeko Batzordearen partaideak udalez gairik izaera dute (Eskualde-erakundeak ez direnak) eta akordio honi atxikitzen zaizkion euskal sektore publikoko erakundeen ordezkariak izango dira.

Batzordea urtean bitan bilduko da, honako eginkizun hauek betetzeko:

- Bere eskumenekoak diren tokiko jasangarritasunaren arloko proiektu, ekimen edo sostengu-programei buruzko informazioa konpartitzea.
- Alderdi bakoitzaren tokiko ekintza bultzatzeko politikak koordinatzeko lerroak proposatzea.
- Toki-erakundeei zuzendutako ekimen sektorialen lidergoa zehaztea eta



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

bereganatzea, Sarearen jardunaren eta tokiko ekintzaren urteko plangintza hobetzeko.

LAUGARRENA. ERAKUNDEEN ATXIKIMENDUA

Akordio honi Euskadiko Udalak eta Eskualde- erakundeak atxiki ahal izango zaizkio. Halaber, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere atxiki ahal izango zaizkio, eta baita Euskadiko Administrazio Orokorraren beste Sail batzuk eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzearekin konprometituta dauden euskal sektore publikoko erakundeak ere.

Atxikimendurako eskaera banakako konpromiso bat sinatzearen bidez formalizatuko da, akordio honen) II-A (Udalak), II-B (Eskualde-erakundeak) eta II-C (Euskadiko Administrazio Orokorraren Sailak eta euskal sektore publikoko erakundeak) Eranskinen arabera. Atxikimendurako eskaera Sareko lehendakaritzak baliozkotuko du.

BOSGARRENA. ATXIKITAKO ERAKUNDEEN KONPROMISOAK ETA EGINKIZUNAK

Akordio honi atxikitzen zaizkion erakunde guztiek jarraian zehazten diren konpromisoak bereganatu beharko dituzte eta adierazitako eginkizunak bete.

a) Udalen konpromisoak eta eginkizunak:

- 2030 Agenda bide-orri gisa erabiltzea tokiko plangintza eta ekintzarako, eta GJHen arabera ikuspegia udal politika eta kudeaketan txertatzea.
- Aurrera egitea, modu gradualean, Tokiko 2030 Agendaren prozesuen inplementazioan, Udal bakoitzaren konpromiso politiko gisa eta etengabeko hobekuntzarako konpromiso gisa, udalerrak eta/edo eskualdeak garapen jasangarriari egiten dion ekarpen bezala.
- Kargudun politiko bat eta ordezkari bat izendatzea Sareko ordezkari gisa, eta baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.
- Sarearen jardura eta foroetan modu aktiboan parte hartzea edo ordezkaritza dagokion Eskualde- erakundeari delegatzea, Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa- planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzeko.
- Kontaktuak, informazioa, ezagutza, materiala eta esperientziak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen liburutegi birtuala zabaltzeko eta beraren adimen kolektiboa handitzeko. Ihobek horren banaketa kudeatuko du.
- Kolaboratzea eta Sarearen eskari eta beharrei erantzutea, eta, zehazki, udal politika eta antolaketari buruzko bi urtetik behingo inkesta betetzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokitako.

b) Eskualde-erakundeen konpromisoak eta eginkizunak:

- Tokiko 2030 Agendeninguruko sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzak gauzatzea eskualdeko Udalen artean, GJHen ikuspegia udal politika eta kudeaketan txertatu dezaten.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

- Tokiko 2030 Agendak dinamizatzen laguntzea eta/edo eskualde-ikuspegia duten 2030 Agendak diseinatzea.
- Kargudun politiko bat eta ordezkari bat izendatzea Sareko ordezkariak izateko, eta baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.
- Sarearen jarduera eta foroetan modu aktiboan parte hartzea; eta dimentsio txikiagokoak diren edo baliabide gutxiago dituzten udalerririk beharrezkotzat jotzen den foroetan ordezkatzeko.
- Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzea.
- Informazioa, ezagutza, materiala eta esperientzia praktikoak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen adimen kolektiboa handitzeko, eskualde-ikuspegia bereziki ekarriz.
- Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikorekin batera, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea GJHen ikuspegia udalerririk edo eskualdeek garatuko dituzten ekimen eta proiektuetan txertatzeko, horien diseinufasean.
- Tokiko jasangarritasunaren inguruan Eskualdearen barruan modu bateratuan abiatzen diren lan-ildoak sostengatzea, bultzatzea eta koordinatzea.
- Idazkaritza Teknikotik sustatutako lurralde-topaketetako parte-hartzea dinamizatea.

c) Euskal sektore publikoko udalez gaindiko beste erakunde batzuen konpromisoak eta eginkizunak:

- Modu iraunkorrean kolaboratzea eta informazioaren eta ezagutzaren trukea sustatzea, tokiko jasangarritasunaren arloko jarduerak Euskadin hobeto koordinatzeko.
- Erakunde bakoitzak dituen eta Sarearentzat interesgarriak diren beste proiektu, ekimen edo sostengu-programa batzuei buruzko informazioa ekartzea.
- Foro eta lantalde esanguratsuenetan modu aktiboan parte hartzea (bai Ingurumen sailetatik eta bai Basque Country 2030 Agendari lotutakoetatik).
- Erakundeen eskumenekoak diren edo erakundeak gizarte-, ekonomia- edo ingurumen-arloetan erreferente diren gai buruzko ezagutza eta esperientzia ekartzea.
- Tokiko 2030 Agendaren arloan egiten diren aurrerapenen komunikazioan/dibulgazioan laguntzea, eta Sarearen komunikazio-eta dibulgazio-jarduera propioak sortzea eta sustatzea.
- Sarearen jarduera orokorra finantzatzen laguntzea, beraren kide izateagatik urtean 5.000 euroko kuota ordainduz.
- Atxikitako erakundebakoitzak proposatu eta gidatzen dituen lantaldeak edo proiektu espezifiko sektorialak sostengatzera zuzendutako laguntza teknikoak kudeatu eta kontratatuzetik eratorritako kostua ordaintzea.

BOSTGARRENA. INDARRALDIA

Akordio hau beraren lehenengo atxikimendua balioztatzen den egunean sartuko da indarrean. Akordioak 4 urteko indarraldia izango du, egun horretatik aurrera.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

SEIGARRENA. KOMUNIKAZIO PUBLIKOA

Akordio honekin zerikusia duen informazioaren komunikazio publikoak sarearen logoak eta berari buruzko erreferentziak txertatu beharko ditu, estilo- eskuliburuak xedatzen duenarekin bat etorritik. Beraren hedakuntzaren aurretik, horren berri eman beharko zaio Sarearen Idazkaritza Teknikoari.

I. ERANSKINA: EUSKADIKO TOKIKO GARAPEN JASANGARRIREN BEHATOKIA ETA E-MUGI PLATAFORMA

Ihobek, Euskadiko Tokio Garapen Jasangarriren Behatokia eta e-mugi plataforma ustiatzeko eskubideen jabe eta titularra den aldetik, lizentzia transferiezin eta ez-esklusibo bat emango die hori idatziz eskatzen duten Udal eta Toki erakundeei, e-mugi aplikazio informatikoaren erabilera espezifikorako, euren Tokiko 2030 agendaren prozesuak eta euren jasangarritasun-politikak eta ekintza-plan jasangarriak kudeatzeko, Udalsarea 2030en baitan, betiere Sarearen partaide izateari lotuta.

Eskaera Eskualde-erakunde batetik datorrenean, baldintza bat bete beharko da lizentzia eskuratzeko, hau da, Erakundeak zerbitzua ematen dien udal gehienek Udalsarea 2030en partaide izan behar dute eta modu egiaztatuan onartu behar dute.

Halaber, e-mugi plataformaz baliatuz, Ihobek tokiko izaera duen informazioa eskainiko die Sarearen kide diren toki-erakundeei, urtean behin edo bi urtetik behin, funtsezko informazio-iturritzat jotzen diren erakunde hornitzaileetatik hartuta (hala nola Eusko Jaurlaritzako sailak, Foru Aldundiak, Eustat, EEE, URA, Iberdrola, Gas Natural, REE, CNMC); horren helburua da tokiko garapen jasangarriaren adierazleak kalkulatzeko eta udalen berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioak egiten laguntzea, Udalsarea 2030en baitan indarrean dagoen garapen jasangarriaren tokiko Adierazleen Sistemaren arabera.

Ihobek, Euskadiko Garapen Jasangarriaren Tokiko Behatoki gisa, udalak edo –hala dagokionean- eskualde-erakundeak e-mugin duen informazioa ustiatu ahal izango du, Edo behatokiaren bidez bildutakoa tokiko euskal erakundearen rola agerian uzteko, sektore, erkidego, lurralde eta estatu mailako politikei egiten dieten ekarpenaren balioa nabarmentzeko, Udalsarea 2030 tokiko jasangarriaren alorrean sare gisa posizionatzeko, bai estatuan eta bai nazioartean, eta Sarearen xede eta helburuak betetzen laguntzeko.

Toki-erakundeek (udalak eta eskualde-erakundeak) aitortzen dituzte Ihobek e-mugi plataforma informatikoaz dituen “copyright” eskubideak; aitortzen dute, halaber, bere erabilera partikularrerako soilik lagatzen zaiela, eta konpromiso hau hartzen dute: beraren erabilera partziala edo osoa ezein modutan ez lagatzea eta



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

hitzarmen honen arabera beraren gainean duen ezein eskubide ez transmititzea, ezta dibulgatzea, argitaratzea edo beste norbaiten esku beste edozein modutan jartzea ere, haren erabilerarako aurretik izendatu diren pertsonak salbuetsita. Gainera, Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikoa eta Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokia den aldetik, honako hau baimentzen diote Ihoberi:

- garapen jasangarriarentokiko adierazleen kalkuluarekin lotutako tokiko informazioa edo kasuan kasuko erakundearen informazioa eskatzea, urtero, udalez gaindiko informazio-iturri diren erakunde hornitzaileei (honako hauek barne sartuta: energia-kontsumoak, CNMC- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren hornidura-puntuaren informazio sistemaren (SIPS) datuetarako sarbidea, eta Red Eléctrica de España, S.A.U., REEren neurri elektrikoen sistemarako (SIMEL) sarbidea), informazio hori Behatokiaren e-mugi plataformara iraultzeko, toki-erakundeei informazio hori eskuratzen laguntzeko.
- Sarearen jardunaren esparruan jasotako tokiko datuen tratamendutik ateratako informazioa hedatzea, Udalsarea 2030en euskarritan eta komunikazio-elementutan, hala nola argitalpenak, webgunea, ekitaldiak, etab., tokiko administrazioen gardentasunaren alde egiteko.
- Udalsarea 2030en kide diren udalez gaindiko erakundeei –Foru Aldundiak, URA, EEE, etab.- politika publikoak ebaluatzeko programetatik eta garapen jasangarriaren tokiko adierazleen kalkulutik ondorioztatutako lurralde eta/edo sektore mailako datuak eskuratzea.

Aurretik datorren guztiari indarrean dagoen Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina aplikatzen zaio.

II-A ERANSKINA (Udalak)

TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO –UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA- AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA

Usurbilgo Udalak NBEk promulgatutako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak modu aktiboan betetzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, bere udal politika eta kudeaketa egokitzearen eta eraldatzearen bitartez.

Konpromiso hau gauzatzeko modua da tokiko gobernantza-eredu integral eta adimendun bat ezartzea, jasangarritasun globalaren aldeko hobekuntza etengabeko prozesu gradual baten bitartez, Tokiko 2030 Agendara iristeko xedez.

Eta ahalegin horretan, Udalak azpimarratzen ditu Udalsarea 2030en partaide izatearen onurak, horren helburua tokiko ekintza jasangarria sustatzea baita, Tokiko 2030 Agendaren esparruan, prozesu horiek teknikoki sostengatzeaz batera.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Horiek horrela, Usurbilgo Udalak ADIERAZTEN DU:

Atxikitzen zaiola "TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO –UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA-AKORDIOARI", hortik eratorzen diren konpromisoak bereganatuz.

Horretarako, pertsona hauek izendatzen ditu:

Maila politikoan:
Arduraduna (Izen-abizenak)
Kargua
Helbide elektronikoa

Ordezkoa (Izen-abizenako)
Kargua
Helbide elektronikoa

Maila teknikoan:
Arduraduna (Izen-abizenak)
Kargua
Helbide elektronikoa

Ordezkoa (Izen-abizenak)
Kargua
Helbide elektronikoa

20.....(e)ko,(a)ren(e)an

Izpta.:..... Usurbilgo Udala

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa

Atxikimendurako eskaeran ageri diren datu pertsonalak Arlo Teknikoa izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta txertatuko dira.

Arduraduna: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe, S.A.

Helburua: Tokiko 2030 Agenda eta tokiko ekintza jasangarria Euskadin bultzatzeko akordioari atxikitze eskaeren kudeaketa.

Legitimazioa: eskatzailearen baimena.

Hartzaileak: datuak atxikitako erakundeen artean konpartituko dira, Udalsarea 2030en baitan, betiere beharrezkoa denean kideen arteko harremanak hobetzeko,



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

sarearen proiektuak, ekitaldiak eta jarduerak garatzeko eta beraren adimen kolektiboa handitzeko, tokiko garapen jasangarriaren inguruan.

Eskubideak: baduzu datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, eta baita informazio erantsian jasotako beste eskubide batzuk ere.

Informazio erantsia: Datuen Babesari buruzko informazio erantsi eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean:

<http://www.udalsarea21.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=09e40489-90d3-4162-8e77-7e322eae4bb4&Idioma=es-ES>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

(eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa

(www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

TXOSTEN TEKNIKOA

Akordioa aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikotxea Retegi jaunak, 2023ko azaroaren 22an, hitzez hitz honako txostena eman du:

TXOSTENA

GAIA: Tokiko ekitnza jasangarria eta tokiko 2030 Agenda bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 – Udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena.

UDAL TEKNIKARIA: Ibon Goikoetxea Retegi
ESPEDIENTE ZBKIA.: 2023HITZ0008

AURREKARIAK

- 2023ko azaroak 17an Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, Udalsarea 2030 sareko kide izateko akordio proposamena heleraziz.

AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Lehen Tokiko Agenda 21 moduan ezagutzen zena eta orain 2030 Agenda bezala izendatu dena, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak "Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako 2030 Agenda" dokumentuan du oinarria. Nazio Batuen Erakundetik, tokiko mailatik hartzen diren erabakiek



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

garapen iraunkorrerako duten garrantzian azpimarra egiten da, eta hortik abiatuz tokiko Agenda21ek eta tokiko 2030 Agendak berebiziko garrantzia hartzen dute, garapen jasangarriaren bidean.

Usurbilgo Udala lerratuta egon izan da lan ildo honekin.

- 2008ko maiatzaren 27an, udalbatzak, Usurbil jasangarritasunaren bidean kudeatzeko ekimenaren baitan, Agenda 21eko ekintza plana onartu zuen.
- Geroztik, Usurbilgo Udala Udalsarea 21 sareko kide izan da.

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak helerazitako akordio proposamena eta atxikitzeko eskaera ikusirik, hurrengoak proposatzen dut.

- Ikusirik maila ezberdinetako erakundeek garapen jasangarrirako helburuak betetzeko erakundeen elkarlana bultzatu eta tokiko erakundeen garrantzia azpimarratzen dutela.
- Ikusirik Udalsarea 2030 sarea, garapen jasangarria bultzatzeko tokiko erakundeen foro baliagarria suertatu izan dela Usurbilgo Udalarentzat.

Akordioari atxikitzeko ALDEKO txostena igortzen dut, Udal ordezkari tekniko bezala Udal ingurumen eta nekazaritza teknikaria, eta hirigintza saileko arduraduna izendatzea proposatuz.

Ibon Goikoetxea Retegi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Guzti hau ikusirik, Lurralde Batzordeak, 2023ko abenduaren 12an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Xabier Aranburu, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin, aho batez, egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko – Udalsarea 2030, udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena– akordioari atxikitzea onartzea.

BIGARRENA: Usurbilgo Udaleko ordezkari bezala hurrengoak izendatzea:

- Ordezkarri politikoak:
 - Arduraduna: alkatea, Agurtzane Solaberrieta Mesa.
 - Ordezkoa: zinegotzia, Ainhoa Arrozpide Landa.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

- Teknikariak:
 - Arduraduna: ingurumen eta nekazaritza teknikaria, Ibon Goikoetxea Retegi.
 - Ordezkoa: udal arkitektoa, Nora Erdozia Ibañez.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri IHOBE Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoari ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO USURBILGO UDALA ETA GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO HITZARMENA LUZATZEA (2023HITZ0009).

1.- AURREKARIAK

I.- Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

III.- Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

IV.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabilzaileei ematen zaien arreta hobetzeko asmoz, 2021ean lankidetzaren hitzarmen bat formalizatu zuten. 2023ko abenduaren 31ean amaituko da haren indarraldia, eta, bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen dena.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

V.- Bi administrazioen helburua da eskumenak berrantolatzen jarraitzea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, erabaki dute 2024urtean zehar ELZren baterako finantzaketari eustea. Horretarako, lankidetzaz hitzarmena luzatu behar da.

Guzti hau ikusirik, Herritarrak Batzordeak, 2023ko abenduaren 13an egindako bilkuran, bost aldeko botoekin (Agurtzane Solaberrieta, Iratxe Begiristain, Xabat Beloki, Ivan Iriondo eta Petra Romero) egindako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena luzatzea.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki hauen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

11.- BIZITZA ASEGURUAREN ESTALDURA UDAL ZINEGOTZIEI ERE ZABALTZEA.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Jarraian, batzarkideek alkatearen proposamena aztertu dute eta honako erabakia hartu dute:

“AURREKARIAK

I.- 2016ko azaroaren 7an Udalbatza-Plenoak onarturiko Usurbilgo Udaleko langileen Lan Hitzarmeneko 95. artikulua honako aurreikuspen hau du bizi eta ezintasun aseguruari buruz: *“Erakundeak 45.000 euroko estaldura izango duen bizi eta ezintasun iraunkor, oso edo absolutu aseguruia izango du bere kargura enplegatu guztientzat. (...)”*.

II.- Usurbilgo Udaleko zinegotzi guztiek istripu poliza baten estaldura dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

III.- Gaur egun Usurbilgo Udalak 13 zinegotzi ditu, horietatik 3 zinegotzi osoki liberaturik eta beste bat lanjardun erdian. Bestetik, izendapen askeko ebentual bat ere badu soldatapean. Aseguruetan izendapen askeko ebentuala bizieta aseguruan alta emanda dago baina aldiz zinegotzietan istripu aseguruia dute, horietako 4 soldatapean egon arren.

IV.- Egoera horrek sortzen duen nahasmena argitze aldera udal langile guztiak zein langile ebentuala(k) bizieta aseguruaren estaldurapean dauden bezala, zinegotzi liberatu zein ez liberatuen egoera argitzeko beharra dagoela ikusi da.

Alkatearen proposamena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udaleko langileen Lan Hitzarmeneko 95. artikulua aurreikusten duen "bizi eta ezintasun iraunkor, oso edo absolutu aseguruia" udaleko zinegotzi guztiei zein izendapen askeko langile ebentualei ere aplikatzea. Horietako baten bati bere egoera pertsonala tarteko (pentsionista izaera, adibidez) ezin izango balitzaio bizieta asegururik egin, kasu horretan istripu poliza bat jartzeko eskaera egingo luke Usurbilgo Udalak.

BIGARRENGOA: Udal zinegotzi guztiei ere bizieta aseguruia indarrean jartzea 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izango da."

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

12.- MOZIOA: GUTXIENKO PENTSIOA 1080.

Puntu hau diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek aho batez puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute.

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioaren aurrean EAJ eta PSE udal taldeek mozio alternatibo bana aurkeztu dute.

Hasteko, batzarkideek EAJ udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa aztertu dute eta gehiengoaren kontrako bozkarekin ez da onartua izan.

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Aldeko botoak: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Aurkako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea eta Petra Romero Pozo.

Beraz, ez da onartua izan.

Ondoren, PSE udal taldeak aurkeztutako mozio alternatiboa aztertu dute eta gehiengoaren kontrako bozkarekin ez da onartua izan.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoa: Petra Romero Pozo.

Aurkako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, ez da onartua izan.

Azkenik, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoaren aldeko bozkarekin onartua izan da.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Maialen Iñarra Arregi eta Oskar Santamaria Picabea.

Aurkako botoak: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

Honela dio gehiengoz onartutako mozioak:

“GUTXIENKO PENTSIOA 1080

Gaur egun, bizi-kostuaren hazkunde esponentziala dela eta, gero eta pentsiodun gehiagok galtzen dituzte etxebizitza osasungarria eta beren beharretara egokitua izateko aukerak, elikadura osasungarria, haien osasuna eta mendekotasunari erantzuteko arreta eraginkorra bermatzea, etab. Gaur egun, EAEko 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsiengatik; gehienak emakumeak dira.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/12/20

Gutxieneko pentsioaren aldagai guztiek emakume izena dute. Genero-ezberdintasunean ikusten da hori, eta horren aurrekaria eta soldaten ezberdintasuna eta emakumeen alde bateko esleipena ordaindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari, ugalketaren eta zaintzen eremuan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik pentsiodunen mugimenduaren mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonen ematen dioten zilegitasuna du.

Pentsiodunen mugimenduak ondorioztatzen du ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dute egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, Usurbilgo Udalaren osoko bilkurak erabaki hauek hartu ditu:

1. EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.
2. EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia.”

Amaitzeko, Eusko Herriko Pentsiodunen Mugimenduko Bittor Iribar-ek hitza hartu du.

13.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:10ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.